1 . galdera

Aukeratu bat:

a. hurrengo prozesua (fonologikoa adibidez) has daiteke aurrekoa (lexikoa) guztiz bukaturik ez dagoelarik.

b. Prozesuak modu serialean gertatzen dira, hots, prozesu bat amaitutzat jotzen denean hasiko da hurrengo prozesua.

c. prozesu interktiboak gertatzen dira, hots, prozesuak era librean gertatzen dira ordena prozeduralik errespetatu gabe, goitik behera eta behetik gora.

d. hitzak kohorteen bitartez aktibatzen dira.

Feedbacka

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: hurrengo prozesua (fonologikoa adibidez) has daiteke aurrekoa (lexikoa) guztiz bukaturik ez dagoelarik.

2 . galdera

Aukeratu bat:

a. informazio sintaktiko, semantiko eta morfologikoa gordetzen du.

b. informazio sintaktiko, semantiko, fonologiko eta morfologikoa gordetzen du.

c. informazio fonologiko eta morfologikoa gordetzen du.

d. informazio sintaktiko eta morfologikoa gordetzen du.

Feedbacka

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: informazio sintaktiko, semantiko, fonologiko eta morfologikoa gordetzen du.

3 . galdera

Galderaren testua

Informazioa prozesatzen dugunean, bi prozesu desberdintzen ditugu: Goitik-Beherako prozesuak eta Behetik-Gorako prozesuak. Zein ezberdintasun dute bi prozesu hauek?

Aukeratu bat:

a. Behetik-Gorako prozesamenduan, estimuluaren beraren inputak (adibidez, soinuen ezaugarri akustikoetan oinarritutako analisiak) zuzenean afektatzen du estimuluek eragindako prozesamendua.
Goitik-Beherako prozesamenduan edo kontzeptualki eragindako prozesamenduan, norbanakoak bere aldetik jartzen duenak edota jasotako inputa prozesatzen duguneko testuinguruak afektatzen du informazioaren prozesamendua.

b. Behetik-Gorako eta Goitik-Beherako prozesamenduek prozesu berak islatzen dituzte.

c. Behetik-Gorako prozesamenduan, edo kontzeptualki eragindako prozesamenduan, norbanakoak bere aldetik jartzen duenak edota jasotako inputa prozesatzen duguneko testuinguruak afektatzen du informazioaren prozesamendua.

Goitik-Beherako prozesamenduan estimuluaren beraren inputak (adibidez, soinuen ezaugarri akustikoetan oinarritutako analisiak) zuzenean afektatzen du estimuluek eragindako prozesamendua.

d. Behetik-Gorako eta Goitik-Beherako prozesamenduek pertzepzioarekin lotutako aktibazioak azaltzea dute xede.

Feedbacka

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: Behetik-Gorako prozesamenduan, estimuluaren beraren inputak (adibidez, soinuen ezaugarri akustikoetan oinarritutako analisiak) zuzenean afektatzen du estimuluek eragindako prozesamendua.

Goitik-Beherako prozesamenduan edo kontzeptualki eragindako prozesamenduan, norbanakoak bere aldetik jartzen duenak edota jasotako inputa prozesatzen duguneko testuinguruak afektatzen du informazioaren prozesamendua.

**4**. galdera

Galderaren testua

Aukeratu bat:

a. a) eta b) aukerak berdin izendatuko ditugu gertutasun fonologiko zein semantikoek berdin lagunduko digutelako.

b. b) irudia azkarrago izendatuko dugu gertutasun fonologikoak lagunduko digulako. b) irudia motelako izendatuko dugu gertutasun semantikoak oztopatuko digulako.

c. a) irudia azkarrako izendatuko dugu gertutasun semantikoak lagunduko digulako. b) irudia motelako izendatuko dugu gertutasun fonologikoak oztopatuko digulako.

d. a) azkarrago izendatuko dugu kognatua delako.

Feedbacka

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: b) irudia azkarrago izendatuko dugu gertutasun fonologikoak lagunduko digulako. b) irudia motelako izendatuko dugu gertutasun semantikoak oztopatuko digulako.

**5**. galdera

Galderaren testua

(gogoratu klasean egindako esperimentua)

Erabaki lexikoko ariketa batean, besteak beste, partaideak...

Aukeratu bat:

a. jaso duen estimulua hitz bat den ala ez erabaki behar du.

b. altuan errepikatu behar du jaso duen estimulua.

c. esaldi bat eraiki behar du jasotako estimuluarekin.

d. hitzak maiztasun altukoak diren edo ez erabaki behar du.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: jaso duen estimulua hitz bat den ala ez erabaki behar du.

## 6. galdera

Hiztegiko hitzak bitan banatu daitezke:

Aukeratu bat:

a. Hitz luzeak eta hitz motzak. Lehenengoek zailtasun handiagoa erakusten dute sarbide lexikoan, euren letra kopuruak asko zailtzen du hitz luzeen prozesamendua. Bigarrenak aldiz, abantaila dute ekoizpenean, baina ez ulermenean, argi eta garbi utziz ekoizpena eta ulermena bi prozesu erabat desberdin direna.

b. Hitzak eta sasihitzak. Lehenengoek zailtasun handiagoa erakusten dute sarbide lexikoan, euren letra kopuruak asko zailtzen du hitz luzeen prozesamendua. Bigarrenak aldiz, abantaila dute ekoizpenean, baina ez ulermenean, argi eta garbi utziz ekoizpena eta ulermena bi prozesu erabat desberdin direna.

c. Eduki hitzak eta Funtzio hitzak. Lehenengoak kategoria itxikotzat hartzen dira, eta postposizio, lokailu, determinatzaile etab.ek osatzen dute. Bigarrenak aldiz, kategoria irekiko hitzak dira; izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbio gehienak kokatzen dira bere baitan, eta hiztegian ugarien diren hitzak dira. Funtzio hitzak eduki hitzak baino gutxiago dira, eta euren erabilera maiztasun orokorra oso txikia da.

d. Eduki hitzak eta Funtzio hitzak. Lehenengoak kategoria irekiko hitzak dira; izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbio gehienak kokatzen dira bere baitan, eta hiztegian ugarien diren hitzak dira. Bigarrenak aldiz, kategoria itxikotzat hartzen dira, eta postposizio, lokailu, determinatzaile etab.ek osatzen dute. Funtzio hitzak eduki hitzak baino gutxiago diren arren, euren erabilera maiztasun orokorra askoz handiagoa da.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: Eduki hitzak eta Funtzio hitzak. Lehenengoak kategoria irekiko hitzak dira; izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbio gehienak kokatzen dira bere baitan, eta hiztegian ugarien diren hitzak dira. Bigarrenak aldiz, kategoria itxikotzat hartzen dira, eta postposizio, lokailu, determinatzaile etab.ek osatzen dute. Funtzio hitzak eduki hitzak baino gutxiago diren arren, euren erabilera maiztasun orokorra askoz handiagoa da.

## 7. galdera

Maiztasun altuko hitzak...

Aukeratu bat:

a. Maiztasunak ez du zeresanik hitzen aktibazioan.

b. maiztasun baxukoak bezain azkar irakurtzen dira.

c. maiztasun baxukoak baino azkarrago irakurtzen dira.

d. maiztasun baxukoak baino motelago irakurtzen dira.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: maiztasun baxukoak baino azkarrago irakurtzen dira.

**8**. galdera

Elkarrekiko esklusibotasuna (Mutual Exclusivity) oso erabilgarria da haur txikientzat (eta helduentzat) oraindik ezagutzen ez dituzten objektuen izenak ikasteko. Baina zertan datza?

Aukeratu bat:

a. Elkarrekiko esklusibotasuna 3 urteko umeen estrategian oinarritzen da. Esaterako, haur txiki batek bi objektu aurkezten dizkio beste haur bati, eta beste haurrak bietako bat aukeratzen du. Bigarren haur txikiak beti aukeratuko du osotasuna adierazten duen objektua, eta zatikakoa baztertu egingo du, objektu osoaren joera erakutsiz.

b. Bi eta hiru hilabeteko haurrek objektuak kategoriatan sailkatzeko duten joeran oinarritzen da. Esaterako, haur txikiek nahiago dituzte formak eta itxurak kategoriak sortzeko garaian koloreak baino.

c. Objektu bat -> Hitz bat hatsarrean oinarritzen da elkarrekiko esklusibotasuna. Esaterako, bi objektu aurkezten bazaizkigu, eta bietako bat ezaguna bazaigu (eta bere izena ezagutzen badugu) eta bestea ez badugu ezagutzen, norbaitek ezagutzen ez dugun hitz bat esaten badigu, segituan pentsatuko dugu hitz berri hori objektu ezezagunaren izena izango dela.

d. Hitzak aukeratzeko metodo bat da, gehien gustatzen zaigun hitza aukeratzean datza.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: Objektu bat -> Hitz bat hatsarrean oinarritzen da elkarrekiko esklusibotasuna.

Esaterako, bi objektu aurkezten bazaizkigu, eta bietako bat ezaguna bazaigu (eta bere izena ezagutzen badugu) eta bestea ez badugu ezagutzen, norbaitek ezagutzen ez dugun hitz bat esaten badigu, segituan pentsatuko dugu hitz berri hori objektu ezezagunaren izena izango dela.

**9**. galdera

Hitzen errekonozimendurako Teoria Motorean...

Aukeratu bat:

a. entzuleek logogen dispositiboa aktibatzen dute.

b. entzuleek hiztunen mugimendu artikulatorioak imitatzen dituzte.

c. entzuleek entzumena erabiliz errekonozitzen dituzte hitzak.

d. entzuleek sare paralelo bat aktibatzen dute ezaugarriak, hitzak eta fonemak elkarrekin lotzen dituena.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: entzuleek hiztunen mugimendu artikulatorioak imitatzen dituzte.

**10** . galdera

Después de ver la palabra "perro", la gente identifica la palabra "gato"...

(zakur, zaldi, behi) irudiak ikusi ostean, jendeak "ardi" hitza "aulki" hitza baino...

Aukeratu bat:

a. motelago identifikatzen du, ahaide fonologikoak direlako.

b. berdin identifikatzen ditu, ez baitago priming efekturik.

c. azkarrago identifikatzen du,  priming semantikoa gertatzen baita.

d. motelago identifikatzen du, bi esanahiak lehian sartzen direlako.

Respuesta correcta

Erantzun zuzena hau da: azkarrago identifikatzen du,  priming semantikoa gertatzen baita.